




[6]

1971 - (Apr. - Ek.)





EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

Funtsezko gora-behera: behar da Ikastola gizarte osoari dago-kion afera bihur dadin; ireki da-dila kanporat, eta gizarte-bizi-tza barneratuaz presta ditzala geroko belaunaldiak.

Bernard Eliade-k.

-4-

IKASTOLA eta HERRIA

Ikastolak herriaren behar bati erantzun nahi rik sortu ziren. Memento batetan herriarengandik berearengandik sortuak ditugu, memento hartan herriak bizi zuen kezka bati aurpegi emateko. Herri hau aurrera dohan heinean, bere arazoak astintzen ari den bezalaxe, ikastolak bereak ere aireatu egin behar ditu.

Honek ez du esan nahi ikastola herriaren arazoak planteatzeko aitzekitzat hartu behar dugunik, ez.

Herriaren bizitzan memento konkretu bat izanik, herriaren arazoetako bat ikastola berara dugu. Horregatik bere eginkizuna herriaren egin kizunaz nola lotzen den igizarte giro baten kutsupean dagoela agerian dago eta gizarte honek bizi dituen arazo eta burruka guztiak, gure herriaren arazo eta burruketan zer ikusirik ba dutela.

Gure herria, gizarte honen abiadan sarturik dagoenez gero, gizarte honek nora eramanez gaituen, eta zeren eraginez mugitzen den ikusten den ahalegin-tzea, oso premia handiakoa daiteke, gure etorkizuna molda ahal izateko. Ez noski, gizarteak berez garamaz kiken alderat jotzeko, gizartearen barren barrerarik zuzentzen saiatzeko baizik.

Noski, egun gure herriak bizi dituen arazoak ezin dira gizarte osoaren arazoetatik ebaki. Gure arazoak bereziak dira, gure-gureak ditugu, gure herriaren kondairatik zuzenean sortzen direlako. Hargatik, gizarte mailatik ikus bagenitza, haien marka dutela eta haietara bildu ez direla neurri batetan uler ahal, egia da.




kusten aha-
legindu be-
har dugu.

Ikastola alderdi honetatik ikusiz gero, herriaren kontzientziaren suspertzaile izan daiteke, bestela esan, herri hau bere eginkizunaren aurrean jartzeko zerbait esan eta eman dezake.

Bestalde, gure herri hau dagoela agerian dago eta burruka guztiak, gure herriaren arazo eta burruketan zer ikusirik ba dutela.

Hau dela eta nola gure ikastola, gure herritik, hal a gure herria, gure herria gure gizarte mailatik ar-
giago ikusten saiatu behar dugu.

Ikastola ez da hau batzuek egiten duten multzoa bakarrik. Ikastola guraso, irakasle eta haurrek oso tzen duten heziketa bide da. Eta hauen inguruan sortu den giro berriak. Orain guraso eta irakasleei dagokie batipat, honetarako dituzten zioak barrentzea, zio hauen kontzientzia bizi edukitzea, eta egoki denean, berauk zuzentzeko prest egotea.



Ikastolak sortu zirenetik honera egin duten bidea zer-nolakoa izandu den ikustea, komeni da lehenik, bide honek eramanen gaituen, suma ahal izateko.

Abiada egiaz azkarra ikastolak daramatena. Azken urte honetan, berriak, eten gabean sortzen joan dira.

Dagoeneko euskal herri osoko geografian barrena hedatuak ditugu. Ugaritze eta indartze honek, datozten urteetan, jarraituko duela esan dezakegu, gauza harri garririk gerta ez baledi, behinik-behin. Bide berri bat urratu da gure herrian, hobeki esan, urratzen

hasia da. Urratuz gero bideak nora eramanen gaituen markatu egin behar dugu. Ikastolak, bere helburuei erantzun jatorrik ematen ote dien, tai gabe, aztertu behar dugu. Helburu hauk ezin direla, behin betiko ezarri, gogoan harturik eta lanean ari hala sakondu behar direla egin. Jakina denez, bide baten jatortasuna ez da hedaduraren eta zabalkundearen neurrira bakarrik, neur ahal.

Linea jatorrean ari ahal da ikastola?

Bere xedeez azterketa sakonik egiten ahal du?

Bere herriari atxikia diar ahal du lanean?

Zenbait jende, galdera hauk egiten hasia da. Jende frango ikastolaz kezkatu-edo egiten da gaur. Ikastola jende hanitzen ahotan dabilen hitza da, eta hau seinale ona dateke. Nolanahi den ere, has gaitezen ikastolak ahantz ezin dituen helburuez hitz egiten,

garaia da ta.

LEHENIK eta batipat ikastola baten jatortasuna bere HERRIKOTASUNAREN araera, neur ahal dugula, uste dut. Ikastola herrian txertatua behar du egon. Hemendik abiatuz gero, ikastolaren helburuez azterke ta sakon bat egitea ukanen dugu. Bere eginkizuna er diratu ahal izanen dugu. Eta hau egin ondoren gure ikuspegia zorrotzago lizateke eta ondorioz gure lana dinamizatu egingen luke.

Berebat desbiazio kaltegarrienak maila honetan, herri mailan, egiten direnak, dira zalantzik gabe. Eta zenbaitetan desbiazioak, prozesu baten hastean, egon ohi dira, nahiz gu desbiazio horietaz azkenean bakarrik jabetu.

Egun, ikastola HERRIARUNTZ dohanentz aztertu behar dugu eta ZEIN HERRI MOTA sortu nahi dugun garbitzen ahalegindu.

Ikastolak dituen arazoak herriaren arazoetatik at ez lukete zentzurik ukanen. Ikastola, euskal herriko eskola denez, herri honek dituen arazo eta problemaei, bere mailan noski, erantzuna behar du izan. Ikastola arazoak herri arazoak jo behar dituzte. HE-RRIAREN haria harrapatu behar da honetarako.

Problemen sakontze hau, beraz, problemen herriratzete bat behar du izan. HERRI indarren artean, indar tipi bat besterik ez da ikastola. Indar berezia, bere berezitasuna zertan datzan esatea, erraz ez bada ere.

Indar hau herriarena izanik, herriaren helburuetara jartzeko saiatu behar dugu. Herria HERRI izateko tan, bere kultura bidez eta bere heziketaz, nagusi behar da.

Hortaz ikastolaren lana, herri konkretu honen azterketa zehatz batetan, oinarri dezakegu, eta egin, egin behar dugu. Herri honen egoeraz jabetzeke, bere arazoetan murgiltzeke, ez da lan jatorrik egin ahal.

Egun eta hemen lanik egin nahi badugu, egungotasunaz eta hemengotasunaz, berri zehatzik ukan behar du-

gu., eta hau amai gabeko lana da.

Hemen galdera bat sortzen da zuzenean: hots, ZEIN herri zerbitzatu behar du ikastolak? NOLAKO euskal herri mota nahi dute euskal hezitzaileek prestatu? ZER heinetan du honelako lanik ikastolak egin ahal?

Herri hau euskal herriko LANGILE herria dela uste dut. Herri honen egoeraz ez da azalpen luzerik behar edo-ta ez noa esatera, zeren uste bait dut, bertan sartu gabe ez dela egiazki uler ahal.

Bihar giro honetan sartu beharko duen, euskal langilea, nahi da ikastolan prestatu. Haurra langile giroan hezitzea nahi eta ezkoa zaio ikastolari. Eta honera begira ematen ez den heziketa ez da bizitza-tzarako heziketa, gezurrezko giro batetarako baizik.

Gizarte hau zeren eraginez mugitzen den irakatsi beharko zaio ikasleari, biharko langileari eta gizarte honek zein gizon mota daukun sortu, Egun nahiko garbi de denez, langileria menderatzen duen sistimak, gizon mota berezi bat sortu du. Gizon hau kontsumo gizarte honen jopu bihurtu du eta bere zanpaketaz ohartzeko ahalmena ere, kendu egin dio. Gizon hau, zu eta ni, berekoa da. Bereaz bakarrik arduratzen dena, besteez ahaztu egin dela. Gizon hau zeharo konformista da, kritikarako gaitasunik gabekoa. Gizon hau zatikatirik aurkitzen da. Bere bizitzari zentzurik eman nahirik batetik, herriarekiko konpromisoei erantzun nahirik bestetik. Alde batetik gizon jokabidea, bestetik, esan dezagun, politiko eginkizuna. Nola bata besteaz lotu garbi ikusten ez dela. Agirian dagoena zera da: ez dagoela neutral izaterik, ez dagoela erdi biderik. Biharko langileak egungoak bezala, bere zanpaketa onartuko du, ala zanpaketaz jabetuz gero, langile riaren burrukan sartuko da.



Hau honela izanik, langile riaren zanpaketa non dik datorren eta zer ondorio eman dituen, azaldu beharko zaio ikasleari, bere mailan noski, eta gizon haue n interesak alde z ditzan prestatu.

Gizarte hau onartzen ez duenak eta horregatik berri baten bila burrukatzen denak, gizarte hau zertan oinarritzen den argitzen ahalegindu behar du, zein zutabeez dion egungo gizartean eusten, aztertu behar du.

Egungo gizartean zer da gehien baloratzen dena?

Balore maila hau nork sortua dugu?

Eta baitipat, zer erdietsi asmoz sortu daukute?

Balore hauen iturrietara jo behar dugu. Gu ere gizarte honen seme garenez, balore hauen jopu gara ezin dugu uka. Ikastola ere, hein batetan bederen, balore hauetandugu oinarritu. Segurtasunaren bila gabiltz, ofizialtasuna nahi dugu, jende titulo duna eskatzen dugu, karrera on bat eginen duten gizon-emakumeak nahi ditugu prestatu. Eta joera hau, aski barrene-raiño sartuta daukagu.

Eta ez dut esan nahi gauza hauk beharrezko ez ditugunik...ez, baina gauzak ez izan hain errazak eta ximpleak.

Gizon berri bat, aldiz, balore berri batzuetan finkaturik behar du egon. Eta balore hauk aztertuz gero, gure ikuspegia sakonago litzake, eta kritikarako zenbait elementa atera ahal genituzke.

Gaurkoz bi puntu hauk aztertu beharrekoak ikusten ditut:

- GURE herri giroa batetik
- GIZARTE giroa bestetik.


Batetik nahiz bestetik hastea berdin dio, zeren lehenak bigarrenera eramanez gaitu eta bigarrenak lehenera. Batak bestea argitzen lagunduko dauku.

HERRIAREN egoera konkretoa, abiabide dugula, problemen mailatze batetara hel gaitzake; hau da, nola batzuek beste batzuetatik sortzen diren sumatzera eta gakoa non egon daiteken ikustera. Hau egin ez bageneza, ez dugu heziketa errealistari eman ahal. Hezitzea, errealitatea ulert-erazteaz bat, bait dator, norbera bere giroan sartzen hasteaz bat, hasten bait da.

Bestela, besteek sortutako gertakizunen ritmorra dantzatuko gara, besteek beti aurrea harrapatzen

daukutela, gure eginkizunaren hildoan sartzea ezina izanen zaku. Guk heziko ditugun haurrak zein kondairetan sartuko ote dira, beste batzuek eginen duten kondairan ala berek, bere indarrez baliatuz eta bere bizitzaren jabe direla, aurrera aterako duten euskal gizarte berriaren kondairan? Hitz batez, ikastola, herri osora zabaltzearekin ez da aski. Hedadurak ez du jatortasunaren neurri zinezkorik ematen. Ikastola herri daramaten indar guztien entzunean eta erantzunean egon behar du. Langile herri askatu bat osotzerara behar ditugu gure indarrak zuzendu.

Gizarte berri baten bila gabiltzela, gizona barren-barrendik bere kondizionamendu kaltegarrietatik ateratzen saiatu, egungo alienazioak gainditzeko ahalegindu: horra hor gure egin beharra.



Gure herriak sofritzen dituen zampak nola batzuek besteetarik sortzen diren ikusiz gero, funtsezko zampaketa nagusi batetan dutela hasera egiazta dezakegu, eta funtsezko gaitz honi heldu behar diogu.

Herriko problemetarik kanpo ibil ez gaitezenean, eta gure nekeak alferrik gal ez ditzagun.

Hiru puntutan herrikotasun eta gizatasun honetaz zerbait esatea edo konkretatzea on izanen da.

Oraindik bizirik dago gure artean erlijio eztabaida. Agiria denez, iritzi ezberdinak daude eta hara, ez da batere harritzekoa. Bai alderdi batakakoak baita besteak ere gure iritzien azalpena eman behar genuke, agirian eman ere.

Erljioari buruz hitz egiteko nahiz idazteko askatasuna dugunez, kaltegarri da oraindano bezala, gauzak jakiteko zehar bidez ibiltzea. Makurrago oraindik susmoz, iritzi bat emateko baliatzea. Iritzien azaltzeak giroa sanotu eginen luke, edo hemen ere klandestino izan behar ote dugu?

Aurreko zenbakian agertzen zen bezala, fedea-
ren memento bat da eskolaren bidez eman daitekeena.
Fedea-
ren espresioa eta entenditzea edo teorizatzea
batipat. Fedea-
ren esperientzia edo bizitza kristau
familiaria nahiz komunitateari dagokio. Eta hau zalan-
tzik gabe fedea-
ren mementorik garrantzitsuena. Honek,
batez ere, kristautasunaren neurria eman bait dezake.
Hau familian nahiz kristau komunitatean ematen ala
ez eztabaidatu beharko litzake lehenik eta bestea i-
kastolan eman daiteken bigarren.


Eta ez ikastolak goitik behera eta goizetik
arratsera honelako problemez bete. Honela norberaren
buruari astindu gogor bat emateko egokiera baztertu
eta galdu besterik ez dugu egiten eta.

Hontaz gain ere, izan berri dugun kontzilioak
eta ondorengo eztabaidak erakutsi daukutenaz, batzuen-
tzat fedea-
ren formulazio zuzena dena, besteentzat fe-
dearen aurkako formulazio okerrak edo eresiak lirate-
ke. Ikuspegi ezberdinak eta aurkakoak gertatzen dire-
la eta zailtasun handiak sortzen dira. Eta fedea-
ren jatortasunaren neurria bizitzak du azkenik eman ahal.

Kristauok biharko gizartean minoria bat iza-
tera gatozke eta errespetu gaitzaten eskatzea izanen
dugula, uste dugu. Bai egiazko gizarte girorik sor ba-
ledi errespetatuko gaituzte, baina giro hau sortzeko,
guk besteak errespetu ditzagun bidezko eta beharrez-
ko da. Ezen erlijioa ez da indarkeriaz defenditzen
ahal;

Guk herri askatu bat nahi dugu, baina askata-
suna gugandik hasten dugula. Era guztietako erligio-
ak, errespetatu eta zainduko dituen herria.

Kristauaren ustea, beste edozein erligio nahiz
pentsamoldeetan diren alderdi on guztiak, gurean inte-
gratu eta osotu ahal direla, bait da.



Urretxuan gertatu dena ere, alderdi honetatik
begiratu eta aztertzea egoki litzake. Orain arte, hau-
rren gurasoan esku zegoen ikastolaren gudaritza, orain
elizaren kongregazio baten esku egotera, etorri da.
Ez naiz hemen gertatuaren xehetasunik ematen hasiko.

Nolanahi den, pauso bat atzera eman dela uste dut. Herriak ez bait du lehen hainbat arduramez erresponsabilitateabere semeen heziketan izanen. Behar bada norbaitek baietz erantzungo luke.

Baina garbi dago, inor erresponsable egin nahi denean, ardurak bere esku utzi egiten direla. Eta gure eginkizuna besteren esku gelditzen bakoitzean, gure erantzukizuna mugatu besterik ez dela egiten. Ia aski entzunik gaude herria ez dagoela prestaturik baina hau ez da prestatzeko bidea, noski.

Baina hemen besterik ere ba da. Izan ere, zer baiti eutsi nahirik, egin da "Transferentzia" hau, zerbaitek ihes eginen ote zuen beldurrak eraginda, hartu tako jokabidea dela derizkiot. Eta era berean, ikastola hurbilagotik kontrolatzeko asmoak. Eta edozein eratarara ere, ez demokrazia, hau hitz usteldua bada ere, zabaltzeko gogoak, mugatzeko asmoak baizik. Ez, guk nahi genuen herri mota ez da honelakoa;



Jakina denez, joan den udaran, Irunean egiteko asmotan ginen ikastaroa, gobernadorearen aginduz ebatzia izan zen. Hau nolabait azaldu nahirik, informe labur bat prestatu genuen eta Zeruko Argian argitara nahi ukan genuen. Gure informazioa ez zela objetiboa eta, Zeruko Argiaren zuzendaritzak ez zuen argitara nahi izan. Gertakizunen alderdi bakarra agertzen genuela bota zeukuten eta ez genuela behar bezala, idatzi hark ekar lezaken kaltea neurtu. Halabaina, guri jendearekin elkarrizketa hasteko eskubidea ukatu ondoren, berak eman zuten gertatuaren berri. Gu nonbait gauzak behar bezala azaltzeko gai izan ez, eta berak guk esatea nahi genuena esanen zuten; gu isil-erazi eta berak gure ordeaz mintza. Hau serioa ahal da?

Guk gertatuaren berri soil-soilik eman nahi genuen. Haiek ordea han zer gertatu zen, ondo jakinik edozeudelako, gertakizunen interpretazio bat eman zekuten. Berak zuzena jotzen zutena noski;

Alderdi on eta txarrak agertzen zeuzkigutela, gure lanaren seriotasuna nahiz arinkeria epaitzeko gai azaltzen ziren. Eta gure artean ez dugula burru-

karik sortu behar eta beste ohiezko arrazoinak. Gure arteko burruka zertan datzan, jakin beharra legoke eta ez beti gauza berdinak esaten ihardun.

Ez dugu nahi informazio mota hau bakarrik o-nartzen duen herria, aldiz, informazioan askatasuna al-dezten duen herria nahi dugu. Eta askatasunaren neurria ez dute hitz soilek ematen ekintzak baino.


X. Lekunberri.



IN GURASOEN AGINTEARRI HURUZ

"esaneko" izan ditezela nahi dute gurasoek eta hurrekiko berek duten aginpidea dohain berezi bat delakoan daude. Nahi bezainbat aginpide ez badute, beste zenbait gurasoren inbiditan bizi dira. Oker daude. Aginte hau erdietsi, eskura daiteke, zailtasun handirik gabe familia barnean.

Baina ba da gurasorik, zoritxarrez, aginte hau oinarri faltsuetan finkatzen duenik asko, beti ere beren hurrek obeditzea beste helbururik ez dutelako. Bistan da, guztiz makurra den jokabidea dela hau. Agintze-obeditzea ez liteke helburu izan inola. Helburu bakarra: heziketa xuxena. Obeditzea soilki bilatzen duten gurasoek, haurra esaneko eta menpe edukiaz, berek lasakiago bizi tzea dute gogo. Hala bada, lasatasuna da guraso hauentzat helburu. Praktikak, ordea, besterik frogatzen du luzarora: ez lasatasunak, ez-eta obediencia dakartela fruiturik. Oinarri faltsuetan finkaturiko aginteak aldi laburrean irauten du, denak, nola aginte hala obeditze, berehalako batetan lur-jotzen duelarik. Gertatzen da ere gurasoek menpetasuna dutela erdiesten (lortzen) heziketaren helburu orotaz ahazturik: esaneko haurrak irtengo dira, egia, baina izakera ahulekoak.



Azter dezagun xehetasunez askotariko den aginte itxuragarri honen zenbait mota.

- Aginte-zapalkuntza. - Hau da aginte motarik izugarriena, nahiz-eta ez den kaltegarriena. Gurasoek gehienik erabiltzen duten agintea. Baldin aita haserre eta koleraturik bada, edo zer huskeriarengatik eskandaloa jartzen badu, makila edo gerrikoa eskuetan hartzen bada, galde bakoitzari zigorrez erantzun, hona non den aginte-zapalkuntza,

Familia dena daduka kokildurik, eta ama bera ere neskame bat baizik ez da. Esan beharrik zer kaltegarri den aginte hau. Ez da inola hezigarri, salbu-eta

haur gezurti eta koldar batzuk egiteko ez bada. Zanpaturiko eta kemen gabeko haur hauetarik sortzen dira gero, ahul diren eta hala berean jauntxokeria baizik ez duten pertsonak. Iduri du, halere, gutitzen ote dohan basa-aginte hau.

- Handikeriazko agintea.- Pertsona orok ba ditu bere merezimenduak. Baina zenbait gurasok, etxean behintzat, guztizko jotzen du bere burua eta bera baino gizonagorik, jakintsuagorik, langile hoberik... ez balitz bezala ari da beti seme-alaben aurrean. Amak ere maiz dira gisa horretakoak: dela etxea, dela jantzia, dela halako edo holako leku ikusia... Hontatik dute egiten haurra harropuzteko bide. Orduan aitaren edo amaren haizekeria hauetaz puzturik agertzen da haurra nonahi, eta bereziki lagunartean.

- Ohar eta herstukeriazko agintea.- Kasu honetan, gurasoek ito egiten dute haurra beren ohar, prediku eta etengabeko kontseilu aspergarriez. Gisa honetako gurasoak komentziturik daude hau dela pedagogia molderik jatorrena. Guraso hauek haurrak pertsona helduak bezala joka dezaten nahi dute, baina ez dira konturatzen haurra haur dela, eta berak baino gartsukiago bizi dela eta bihozkoiago dela, eta pertsona helduaren pareko arrazoiketarik ez duela. Etorriko da adinean aurrerat dohan heinean, arrazointzera ere; bitartean, ordea, gurasoen kalaka eta ele-mele hoik denak arras nekagarri zaizkio eta alferrikako bezala dira.

- Bigunkeriazko agintea.- Hau da guraso-agintearen ikuspegirik faltsu eta hedatuena gure artean. Hitz goxo, muxu, fereku eta ezin gehiagoko eztikeri haurrekiko. Haurra kontra plantatzen bada: "Zer, ez du zu aita maite ala.."? Sarritan amak haurren bistan ere dio: "Zoratzeko moduan maite du aita eta ni ere liluraz ikusten nau, hain da maitagarria".

Jokabide honetan puntu asko da arriskukorik. Berekoikeria-ontzi bat da horrelako familia. Gurasoak engainatzeko aski du haurrak ezti apur bat. Gainera, gurasoak beldurrerazteko ere haserre-itxurak


egitea baizik ez du behar. Gisa horretan ttikitandik ikasten du haurrak pertsonak linburtzeko bidea edo maneiatzen. Aipaturiko familia honetan pertsona azal-huts edo itxuragarriak baizik ez dira egiten, eta gurasoak dira maiz lehenik nozitzen dutenak.

- Onezko agintea. - Ez da, hain xuxen, aginte-motarik buruzkoena. Kasu honetan ez da haurra sentimendukeriaz menperatzen, baina bai onez-onean. Aita eta ama haurrari aingeru onak bezala azaltzen zaizkie. Gogoak ematen dien guztia egiten uzten die hurrei, dena ematen die eta esku zabal dira guztiz. Eztabaida bat sortzeak ditu beldurtzen gurasoak gehienbat eta edozer delarik ere sakrifikatuko dute familiaren bakea urratu baino lehen.

Horrelako familietan, berehala hasten zaizkie agintzen seme-alabak, eta gurasoen onezkoak era guzti-etariko gutizia, desira, grina eta esinjentziak sortzen ditu haurrengan. Kasu batzuetan gurasoek, konturatzen direlarik, kontraetsi nahi izaten dute, baina sarritan sobera berandu izaten da.

- Linburkeriazko agintea. Moral arrastorik gabeko agintea da erregaliez eta hitz ederrez erosten den aginte mota.

Gurasoek lotsaren izpirik gabe hitzegun ohi dute: obeditzen baduzu edo zintzoa bazara, zaldi bat, panpina bat, erosiko dautzut.



Ez da esan nahi zerbait mugigarri behar ez denik, baina eginkizun oro sariarekin neurtzea da zinez higuin garri. Gainera, lan bat egiten duela rik haurrak, behin edo bestetan sariztatzea, hor nonbait. Zilegi ez dena obeditzeagatik edo gurasoekin errespetuz jokatzegatik sariztatzea da.

- Aipatu ditugun aginte-mota faltsu hauetaz gain, ba da beste zenbait ere. Adibidez: alaitasunez, jakinduriz, sanotasunez edo antzez (ederrez) erdiesten den agintea. Baina sarritan guraso askok ez du a

ginte ideiarik ere eta guztiz kili-kolo dabiltz haurren heziketan. Horrela bada, gaur, aitak eskandalizatu egingo du haurra edo huskeria batengatik zigortu; bihar, bigunkiro eta ferekuz tratatuko du, eta etzi, saria emanen dio; hurrengo egunean zigorra berriro. Zoraturik dabiltz horrelako gurasoak, eta ezin dute asma, edo-eta ez dakite nondik nora dabilten.

Baita gertatzen da ere, aitak gisa batetara jokatzeko duela eta amak arrunt bestera. Kasu honetan, bada, haurrek lehenik diplomazia ikasi behar dute eta nola molda daitezkeen, bai aitarekin, bai amarekin. Eta azkenik normala ere da gurasoak ez direla haurren heziketari buruz (heziketa diot) deus arduratzen eta trankil bizitzea baizik ez dutela pentsatzen.

Zertan ote datzake sobietar familia batentzat beraz, benetako guraso agintea?

Gurasoen bizimolde eta langintzan, berei naba ri zaien herritasunean eta jokabideetan datza oinarri funtsezkoena. Gauza handia da familia, eta erresponsabilitate handikoa; gurasoen baitan dagoenez, berarek dira gizartearen aurrean erantzule. Gurasoek zintzoki eta buruz badaramate lan hau, helburu handi eta ederrak planteatzen badituzte, beren egite eta eginkizunaren kontzientzia baldin badute, esan nahi du aski aginte-molde egokiaren jabe direla eta ongi oinarritzeko beste zimendu beharrik ez dutela; are gutiago, artifizialkeriazko zer edo zer asmatu beharrik.

Haurrak hazten eta gurasoen berri ikasten do hazen heinean: zertatik bizi diren alegia, zer kezka modu dituzten, zer-nola gizarteaz arduratzen diren, hortan datza guztia. Gurasoek gainera, beren eginkizunetan ezer meriturik baldin badute izan dadila gizartearen eginkizunez inguratzea, ez da inola haizekeria, herriarenganako urguilu sana baizik.

Gainera, lantegiko arazoetan-edo izan ohi da tirabirarik asko, eta orduan ez du aitak akats gabeko pertsona edo "jenio" bat balitz bezala guztien gainetik azaldu behar. Besteen merituen berri ematen erre jakin behar du, eta funtsean lantegi osoarekiko i-

kuspegia ematen saiatu behar du. Zuen seme-alabak aitzaz bezainbat aitaren lantegiaz ohoraturik sentitzen badira, ongi hezitzen dohaz.

Baina gurasoek ez dute lantegi barneko pertsonak bezala soilki azaldu behar. Molde herestuegia litzake. Gure bizitza gizarte sozialista baten moldeetan egin behar dugu. Behar dute, beraz, gurasoek beren seme-alaben aurrean gizarteko partaide direla erakutsi.


Nazio arteko gertakizunak ere zer nolabait aditzera eman behar dituzte beren lehi eta sentimenduetan. Baina, arren, ez uste izan "apropos" bezala egin behar denik, hots, seme-alabek ikusi eta zuen dohainak mirets ditzaten. Guztiz kaltegarri litzake hori. Zinez bizi behar da, egiazki, seme-alaben aurrean erakuspen berezirik egiteke.

Herritar bakarrik ez zarete, guraso gainera, eta bien ala bi eginkizunak batera dira bete beharreko, elkar osatu beharreko.

GOIKO, euskaratzaile.

(1)

Hemen Makarenko pedagogo famatuak gurasoei buruz esaten duenez balia gaitzke hezitzaile eta irakasleok ere.



Guraso ta Gazteen Gora-beherak

Gazte gehienek-esateko, ehunetik ehunek- ba dute zerbait -edodena- beren gurasoekin ondo etortzen ez dena. Nolabaiteko inkestak izan behar dute hor.

Ia beti, -aita semeen artean sortzen da gora-behera, edo ama alaben artean.

- gizarteko erdi mailan, eta hortik gora abiatutako familietan hauek bait dira gehiena eboluzionatzen dutenak, eta aldakorrak. Maila oso goikoak eta oso behekoak aldakaitzagoak dira.
- gizarteko betiko baloreak onartu eta alda ezinkor bezala jota daduzkaten senditan sortzen dira seguruen, balore hoiek eztabaidatzerik ere ez dagoen senditan: baloreak ba dira, hala dira eta zalantzarik gabe izan ere, pentsatzen dute.

9999999999

Bere burua jator osatzen ari den gazte bati saldu dukeria handiegia iruditzen zaio sistema hau dena onartzea, norbaiten goga hala dela-eta. Horregatik, gurasoak, gizarte maila eta betiko baloreagatik, senditan gora-behera gogorak sortzen dira.

Gora-behera orokarra izan ohi da gainera. Ez balore hau onartzen ez delako edo bestea onartzen delako, edo sexualidadea, edo erlijioa, edo ekonomia dela-eta, ez, orokarra. Gora-behera bakarra izanen da lehenengo asarrea sortuko duena, baina konpondu ezina betikoa eta era guztietakoa izanen da.


" Gu gazteok gaur gabilta mundu galdu honetan, gerra bat barruan dugula, zer egin jakin gabe. Gurasoen mundu aldrebes hau ez dugu onartzen, Diruaren morroi izaten erakutsi digute".

\$\$\$\$\$\$\$\$\$\$\$\$\$\$\$\$

Gurasoak dira lehenengo kezkatzen direnak. Beren semea edo alaba normala ez ote den ere pentsatu izan ohi dute.

Gazteek egiten duena protesta bat da, eta protesta norbaiten aurka (aitaren aurka), eta zerbaiten aurka (aitaren agintearen aurka). Gaztea ororen aurka jeikitzen delako ote? Ez, aginte era horren aurka jeikitzen da. Gazteak errespetatzen dituen aginteak eta baloreak ba dira.

Prolema gogor bat aurkitzen du gazteak: alde batetik bere burua gaizki osaturiko baten mendean ikusten du, eta bestetik, bere mundua oraindik osatzeke dago.



Bere jarrera egoskor gisa hartzen da, eta hortik kulpadun kontzientzia ere sortzen zaio. Baina, nolabait, bere inkonformismoa erakutsi egin behar. Erakusten duen heinean, nahiz ekin

tzak hain zuzenak ez izan, jatorra da, bere gurasoak baino gehiago. Hauek ez dute erakuste hori balore bezala jotzen. Honen haurkakoa, inkomunikazioa, bakarti jokaera balore handiagoa da sistema horrentzat. Norbera barrenean den bezala agertzea lotsagarri derizkiogu.

Beraz, bi alde dadukagu: bata aitarena, osatua, eta bestea semearena, horrela osatu nahi ez duena. Eta bi alderdiek talde desberdinak osatzen dituzten heinean, jokabide bereziagoak hartuko dituzte, eta baita elkar gutiago ulertu ere.

⊙⊙⊙⊙⊙0⊙⊙⊙⊙⊙

Aitak bere mailan leku bat daduka, bera "pertsonea" bat da. Bere nortasuna, bere pertsona, gizarte gidari horri saldu dio, zulo bat betetzeko. Izen bat daduka, ez berea noski -hori danok dadukagu-, bere gizar teko zuloarena, abogadua, sendakina, epailea... Ez da zeraren aita, bere betebeharrekin -eta betebeharrak hauek eginen dituenik ez dago eztabaidatzerik-. Semea da abogaduaren edo sendakinaren edo epailaren seme, gero aitak leku bat utziko diona, eta, aita ezkutatu koan, aitaren helburuak aurrera eramanez ditukena edo be-

hintzat eutsiko diena.

Semeak bere pertsonaren birjintasunari eutsi egin nahi dio. Bere kontzientzia eta askatsuna ez ditu saldu nahi, ez du alienatu nahi.

Aitak bere burua gizarte mailan aurrera atera du en batetzat jotzen du. Bide triunfalista bat ikusten du. Bera bere semearentzat eredu. Baina ez da jabe - tzen bera ere semea bezelakoxea izan zenik, eta egun batetan etsi egin zuela, erre egin zela eta orduan, talde egoki bat bilatu ez zuelako edo, gizartearen muntadura ez jatorra onartu egin zuela, berekoi bihurtu zela, ikusten zuen errealitatea utzi eta, halako batetan, teatroa egiten hasi zela. Orain hura dena ahaztuta daduka, "pertsonaiaren" izakera egoki bete bait du.

Sistemak berak ere eredutzat hartu du pertsonaia hori, nahiz eta gidariak beren bidea ez jarrai, Ptro - niok bezala. Honelakoak, heuren sistema defenditzeko egokiak dira. Gizona, bere gogo behartuz, maila horretara iritxi daitekeela diote. Eta bizkera hori jartzen dute lege bezala: heroe izatea, besteak atzera uztera, bakarti jokatzera. Azpikoei zer egin behar duten eta nola jokatu behar duten erakusteko oso pertsonaia egokiak dira hauek.

Halabeharrez, zurikeriaz, bere burua engainatzeko, semeak xuxperrarazten dion kontzientzia isilarazteko, "gaztea oraindik" esaten du aitak, "urteen poderioz sartuko da bidean", (bere burua, bere pertsona salduta, noski).

\$ \$ # \$ # \$ \$

Baina bere helburu hoiei semeak ez ote dien eutsikoz kezkatzen denean datoz kontuak, bere baloreak bait dira onartzen ez dituenak. Ez, aitak ere balore hoiek ez ditu bereak. Balore hoiek balore dira, beste batek ere nahi dituelako, eta beste nori hoieta iritxi ez dalako. Pertsonaiaren molde eta itxura batzuk besterik ez dira.

Gaztea berriz, bere burua osatzen ari da, eta ez pertsonaia bereganatzen edo konkistatzen, eta gutiago beste batek ezarritakoa.

Bi jarrerak bereizten direnean, hasarrea gogorra da. Aitak daduka agintea, baina gazteak izatea. Familia giro txar batetan sartzen da. Denek errudun ikusten dute beren burua. Semea lotuta dago. Etxetik aldegin, eta aitagandiko askatasuna hartzen ba du ere, bere ikasketak edo bere osaketa t. a. moztuta gelditzen dira. Amak ere aita edo semearen alde jarri beharra daduka. Askotan emakumeak ez dira gizarte mailak eta eraketak hain kutsaturik egoten, eta kontuak ulertu egiten dituzte, pixka bat bederen. Halere, aitaren aginteari eutsi nahi izaten diote, baina ez aitzekiak nolabait agertu gabe. Hor daude giro txar horren sustraiak.



Denek dakite gora-beheraren berri, baina inork ez du aitatu nahi. Familiaren batasunari eutsi nahi egin diote, edo ekonomia delata edo erlijioa delata edo gizarterako izen ona delata. Giro nabarmen bat sortzen da. Ez dira behar bezala bizi: gutiago hitzegtzen dute, lanean gutiago lehiatu, ezertarako gogorik ez (jateko ere ez), senar-emazteen artean sexual harremanak ere hoztu egiten dira. Bakoitza bere frakasoaren errua bizitzen ari da. Kulpak bizitza osoa txepeltzen du. Pertsona sano bat maitatzen eta lanean saiatzen da.



Carlos Castilla del Pino-k bost puntutan biltzen du gora-behera honen mamia:

- 1.- Gora-behera aitaren agintea delata sortzen da.
- 2.- Hori, aitaren agintea errealtatean finkaturik ez dagoelako, gizarte legeari begira eratua baizik.
- 3.- Bi aldetatik egoskorkeria bide dala, protesta orokarra sortzen da aginte horren aurka.

- 4.- Semeari errudun kontzientzia egoskorkeri a delata sortzen zaio. Aitari, bere aginte kontzientzia bikoitza ekibokoa delako eta ez hain jatorra.
- 5.- Gora-behera honek familia osoa kutsatzen du eta, bide batez, gizarte osoa, kreatibitatea eta elkarren arteko harremanak hozturik.

arzailus



IRAKURKETARI BURUZ ESPERIENTZI TIPI BAT

Kurso barruan bost urte betetzen duten haurrekin gabiltz lanean, bakoitzak hogeita hamar haur dugu.

Kursoaren lehenengo trimestrea, abesti, elkarriketa, ikusi-makusi, ohartzelanak eta jokuak, plastilina, marrazki librea ta beste hainbat gauza gaur gurre ikastoletan hain ezaguna dugunarekin igaro genuen.

Bigarren trimestrean, irakurketa eta idazketa ri begira, hona zer egin genuen.

Paper edo oihal zatitan, berek ekarritako edo ipuin batetatik ebakitako abere edo beste edozer gauza pegatuta horman jarri genituen, azpian bakoitzari bere izena ezarriaz, baita ere, era berean, paper orritan itsatsiaz eta grapas josirik, idazti batzuk egin ditugu. Horrela izen pila bat ezarri ahal izan dugu, eta oso gogoko dute hurrek.

8888888888

Beste ipuin batzuk ere eginditugu, marrazkiak guk orritan eginda, hurrek margotu eta marrazkitan agertzen diren gauzari izena ezarriaz. Dendatik erositako ipuinak baino atseginago dute hurrek.

Bigarren trimestrean azkenerako, hurrek egiten zutenean, berak beren gisa, berak egindako marrazkiei izena ipintzen hasi ziren, idazti, ipuin edo horoman begiratuta, geroz-eta interes handiagoa dute honetarako.

Hirugarren trimestrean helkarrizketatik irte ten den zerbait, edo beren gertakizunak harbelean idazten hasi gara, eta berehalaxe elkarriketa sortzen hasi dira: "xakurrak" holako hizki ba du, eta nere i zenak holakoa, eta abar.

Lehenengo, denon artean irakurtzen dugu esakizuna, gero banaka galdetzen diegu, gehienek ondo eta oso pozik erantzuten dute.

Ondoren, ahozkadaka galdetzen diegu, esate baterako, non ipintzen du xoria, eta abar.

Esakizun hoiek norberak orri xuritan idazten ditu, ahozkada bakoitza margo ezberdinez, eta haur batek esakizunari dagokion marrazkia egiten du azpian.


Bost edo sei esakizun osatzen dugunean, grapaz josituta, idazti bezala erabiltzen dugu.

Baita esakizunak kartoi luze batzuetan ere idazten ditugu, eta esakizun bera kartoi zati tipietan ere, bakoitzean hitz oso bat dela.

Gero buruhauste bezala erabiltzen dituzte haurrek nahi dutenean.

Gure esperientzia kaskar hauentzako leku apur bat izanen dela pentsatuta idazten dugu.

nerea aranzeta ETA maritxu moreak



FREINET-ESKOLA

batetan

Duela hilabete bat, Frantziako Freinet-eskola bat ikusten izanak gara. Eta aldizkarirako zerbait i dazteko eskatu zeukuten.

Egia esan, gure esperientzia kaxkarra izan zen. Bi irakasleekin pasa genuen eguna, baina hala ere, aski motz geratu ginen gauzak beren zabalera osoan jasotzeko. Hau egin bagenu, bestea galdetu bagenie, ez dakit zer ikusi bagenu... Horrela etorri ginen gure ji ra eginda gero. Gauza handirik ez eskatu, mesedez.

* * *

Delako eskola horrek zortzi urtetako haurrak hartzen zituen: lau urterekin hartu eta hamabi arte. Lau irakasle: bakoitzak bina kursotako haurrak. Honela: 4-5, 6-7, 8-9, 10-11. Irakasleak kurso berdinetako haurrekin beti, kurso batetik bestera aldatzeke noski.

4 eta 5 urtetakoak

a.- Idatz-irakurketa. Ttipienekin, urtearen azken aldera hasten dira hitz ezagunak idazten eta ezagutzen. Garrantzi handikoa ikusten zuen urte hauetako irakasleak, haurrak sartu aurretik dena gertu eduki eta eguneko plana edo egitaraua idatzita edukitzea.

Bostekoekin.- Poliki-poliki, idazten hasten dira. Sartu eta lehenbizi elkar-hizketa izaten da eta hemen go gaiak erabiltzen dira gero lanerako. Gero zertxobait harbelean idazten da, bi eratako hizkiez: bat, hizki lotuez, idatzita ikus dezaten, eta bestea inprentako hizkiez molditzak azkarrago aurki ditzaten, inprimatzeko. Hizki guztiak, ttipiak.

Eguneroko lan eta marrazkiekin albumak osatzen dituzte: bakoitzak berea eta kolektiboak. Albumean, haurraren marrazkia eta ondoan bere esan nahia, hau

rrak esan eta irakasleak idatzita.

§§§§

b.- Matematika.- Hontaz ez genuen ia ezer erabili, gaiak eguneroko elkar hizketatik hartzen zituztela: urtebetetzeak-eta abar, eta hauen bidez haunditasun-ttikitak konzeptoak, gehiago-guttiago...

d.- Ritmoa.- Egunero, eskolatik aparteko leku batetan. Disko eta zinta ugari dute: abesti, doinu melodiku eta dantza popularrez. Abestiak esaterako, animalia edo bizi gabeko izaki bat zuten gai, eta beren bizitza edo berarekiko zerbait kontatzen dute. Gaiari begira, doinua aldatu egiten da. Ritmoa ere aldatu egiten da, beti gaiari lotuta. Ritmoa eramateko, dohain bereziak zituen emakume harek. Ritmorako zerbait berezia jazten dute, eskuan zinta bat bada ere.

* * *

6 eta 7 urtetako haurrak

Beste denek bezala, materiala ugari: margoak, pintura, era guzietako papperak, oso egokia: kartulina antzekoak, zuri eta beltz eta beste margotakoa, brilantea..., inprenta, limografoa, eta eskurako, harkatz eta rotuladoreak.



a.- Idat lanak.- Bakoitzak bere albuna du: bere marrazkiaren ondoan esan nahia irakasleak idatzirik, oso letra xukunez eginda.

Beste album bat, denen artean eginda, munduan gertatutako gauza entzunen argazki eta albisteez osaturik. Egunerokoetatik edo aldizkarietatik jasotako argazkiak eta albiristek hantxe pilatzen dituzte.


Lehen esan dugun eran, hemen ere gauza batzuk harbelean idazten dituzte: hizki lotuez dagoena, bakoitzak bere kuadernoan idazten du: binbitartean, beste bat batzuz inprentan ari dira. Harbelean idatzitakotik, biren artean lerro bat osatzen dute inprimatzeko.

Eskola honetako maila guzietan korrespondentzia eramañen dute, baina ez genuen ondo jaso horretan erabiltzen duten teknika.

Kuaderno batzuetan hitzak osatzen egindako lanak ikusi genituen: silabatik hasita edo letratik hasita: esaterako, ga-kin hasten diranak, edo g-kin hasten diranak.

* * *

b.- Matematika.- Multzoak. Multzoez egindako lan bat ikusi genuen. Paper-kartulina luze batetan, zenbait multzo haurrei buruz eginda: neska eta mutilak, zenbatek hartzen zuten autobusa etxera joateko- zenbat oinez, zenbat etxera bazkaltzera-zenbat kantinara eta zenbat eskolako kantinara eta zenbat herrikora.. Honela, esaterako azkeneko multzoa:



Multzo hauek, lehenbizi, haurrak mugituz konpreni arazten ditu; gero arbelean, eta azkenez paperean, eta papera horman zabaltzen du.

Nolanahi ere, egun askotan zehar egiten dituzte multzo hauek.

Beste lan batzuk jartzen zien haurrei, honela: kruzigrama antzera:

Honela:

	↓	↓	↓	↓
	□	□	1	0
♂		♂		
♂			♂	
	○	□		

tt; puzpentzat
 gerra-
 go
 jena
 sete
 behar
 dute

X	1	0	3	5
3			9	
2		0		
4				20

Lan hau matematikarako preparazio bat zela esaten zuen: lerroa eta kolumna bereizten jakin eta elkarrekin zer-ikusi duten konturatu: elkar jotzen dutenean bi gauza aurkitzen dira: lerrokoa eta kolumnakoa.

Lehen esan dudanez, asti gutti izan genuen

gauza asko jasotzeko, baina haurraren lan personala gutxi ikusi ote genuen geratu ginen: alde guzietan irakaslearen eskua ikusten zen; oso txukun, hori bai, baina haurraren zirriborro gutxitxo... Suposizio bat besterik ez da.

8 eta 9 urtetako haurrak



Hauen irakaslearekin ez ginen egon, eta besteek ere ez zeukaten honen berririk eman. Bere gela ikusi genuen soilok: bertan, inprenta, limografoa eta izugarrizko xori eta pizti pila diseaturik. Hemen egiten omen zuten, bai bere bai haundiagoentzat, zientzia partea. Esplikazio astraktoak eman beharrean, xori edo beste pizti bat gai harturik, esplikazio konkretoak agertzen zeuzkien nahi zutenei.

10 eta 11 urtetakoak

Hauen irakaslearekin egon ginen: gizon ezkondua (3 haurren aita; gu egon ginen beste irakaslea honen andrea zen) jatorra eta azkarra. Honen eguneroko egitaraua honela zen gutti gora behera:

Lehendabizi elkar hizketa: haurrak ekarritako gaiak eta aldizkaritan eta egunerokotan ikusitako albiste interesgarriak. Haurrak bere kontura idatzitakoak irakurtzen dituzte. Elkar hizketatik sortutako gaietatik batzuk proiektu bezala hartzen dira eta harbeltxo baten jarri: hiru aldi ditu:

PROIEKTOAK

LANEAN

BUKATUTA

Baten batek proiektua interesgarria ikusten badu, hartu eta bere izen eta hasierako fetxakin, bigarren aldian jartzen du, eta bukatzen duenean hirugarren aldian. Nahi beste egun hartu ditzazke lana burutzeko. Proiektoren bat inork nahi ez ba du bota egiten da.

Idatz lanetatik hautaturikoa harbelean idazten du ikasle batek. Binbitartean besteak ortografia eta fitxa batzuk egiten ari dira. Gero, denen artean lana

zuzentzen da:ortografia,fraseak zuzendu,komentatu...

Errekreo ondoren,matematika lana:matematika-fi - txa batzuek ere bazituen baina gutxi erabiltzen zitu ela esan zeukun. Zehazki ez zeukun azaldu zer lan e- giten zuen. Matematika lana denek egiten zuten:inork beste premiazko lanen bat bazuen,utzi egiten zion, baina geroari begira (handik irtenda institutura bai zihoazen) behartu egiten zituen.

Arratsaldean telebistako programa,astean bi edo hiru bider,ritmoa (bere andrearekin egiten zuten),de portea eta eskulanak.

Eskulane~~t~~ako zuten tallera ikustekoa zen. Busti- na erretako labea,zerra (indarrarekin),resistentziak (tablex eta konglomerado zuri eta arin bat ebakitze- ko) estainugailuak,zura lantzeko zizel edo tresnak,a rotz-tresnak...eta ez dakit nik zenbat gauza. Oso lan politak zeuden,danaren urrik ere ez genuen ikusi. Besten gelatan ere zenbait eskulan ikusi genuen,bai- na esplikaziorik ez genuen eskatu asti faltaz.

~~~~~

Eskola honetan texto indibidualik ez dute e- rabiltzen,baina konsulta-liburu aski zuten:batzuta - tik,bakoitzak bana,denek batera irakurri behar dute- nerako-eta. Handienak Freinet-koperatibako kolekzio osoa dute eta nahi dutenek etxean irakurtzen dute.

Eskulanak,urtearen azkeneko jaialdi batetan sal- du egiten dituzte materialetarako dirua lortzekotan.

Astean lau egun oso,sei ordukoak,eta egun erdi bat dituzte:osteguna libre gelditzen da nahi duenak erlijio heziketa bat har dezan-edo,eta hotaz apaiz bat okupatzen zen,eskolatik kanpo,noski.

Lau kurso gazteenekin dabiltzanak emakumeak di- ra. Ikaragarrizko lana hartzen dute:egunero-egunero plana idatzi eta egunean zehar zer giro egon den ere bai. Gurasoen aldetik ez dute kezkarik,ez eta inspek- torearen aldetik. Hala ere aurkitzen direla esan zeu- kun,batez ere zaharren artean. Nolanahi ere,guk bai- no inguru sanoagoa dute,alajaina.



## SATURRARAN ETA BEIREKO EUSKAL UDALEKUAK

Azken hiru urte hontan, Saturraranen lehenda-bizi eta Beiren ere gero, "Euskal Udalekua" deritzan egoitzak antolatuz dator talde espezializatu bat.

Deiturak berak aski garbi adierazten duen bezala, egoitz hauk udako daude asmatuak, batezere atsedendegi ditezten, jolasa, eskulana, abestia beste lanik gabe hogeiegunetan.

Gainera, osasunarentzat on ditezken tokiak aurkitzen saiatzen gara, nahiz itsasaldean nahiz lehorrean. Adibidez Saturraran, besteak beste, lehorrekoentzat arras ona da; Beire berriz, mendi aldekoentzat - Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroak goia- ezin hobea. Eta hau ezezik, jolasak, irteerak, bustialdiak, eskulanak errez egin litezkeen tokiak dira, bestela hartu ere ez baita hartzen.

Norentzat? Udaleku hauk 6-tik 15 urte bitarteko neskato-mutiko guztientzat dira, behar diren berezitasunak eginik. Gaitz nabarbenik ez izatea eta, batezere, EUSKARAZ jakitea eta mintzatzea da kondizio bakarra. Alegia, Euskal Herriko edozein haur eta gaztetxoei begira daude eratuak, ez halako edo holako ikastetxe, kolegio edo ikastolakoentzat bakarrik, denentzat baizik.

Egonaldi hauk ez du, noski, -talde honen asmoetan- osasungarri izatea bakarrik. Ba du beste helbururik: haurraren nortasuna lagundu eta euskal izatea landu, guztia joku, jolas eta holakoen bidez batik bat. Haurra, adin hortan, bere inguruko izadiaren, munduaren bila dabil eta bizitza hortan erreztu behar zaizkio bideak. Euskal Udaleku hautan, bizitza ematen zaio, bizitzan mugitzeko haukera, sikologo guztiek diotenez, bizitza praktikua - beste hurrekin harremanak, nagusiekin eta beste jendeekin tratuak, jolasa, eskulanak... - behar bait du, eta ez teoria-liburuak, hitzaldiak-. Hala ere, 11 urtetik gorakoekin egin ohi da zenbait elkarrizketa bizitzako halako edo holako gaiari buruz.



Bestalde, haurrak euskaldunak dira, euskeraz dakitenentzat bait daude eratuak Udaleku hauk. Ezin,



ba, ahantzi lagunarte hortan, jolas eta bizitza hortan euskaldunak direna. Honegatik, Udalekuko giroa osoki euskalduna ohi da: mintzairaz, apainkeraz, kantaz., nahiz eta haurrek erdarako joera ekarri herri askotatik. Eta, noski, bere euskal izateaz ohartzan ere laguntzen zaie; Euskal Herriaren, euskal ohituren berri ematen zaie -hona gure artean diren ikastetxeen hura nolabait beteaz-; euskaraz alfabetatu ere egiten dira, pixkaren bat, haurrak: kantak edota eskutitzak euskaraz idatz eta irakur eraziaz. Zenbait pelikula euskeraz ematen zaie, materiala osatzen denean behintzat.



Lan hau ezin du edozeinek egin, aldeztik hortarako bereiziki gertatua ez badago. Beraz, Saturraran eta Beireko Udalekuak eramaten dituen taldea hortarako ikasia, landua eta espezializatua duzu.

6-7 laguneko Batzorde batek darama Udaldien erakunde materiala: ekonomia, etxeen jaztea, pedagogiaz eta psikologiaz ikasgaiak, jokuak eta eskulanak biltzea eta gertatzea. Baina begiraile -monitore- denek egiten dute, urte barruan, ikastaldi bat edo bi, gai haur denak aztertzeko eta ikasteko. Eta hontaz gain, zenbat begiralek urte guztian iharduten du gai hoietan sakontzen: liburuak irakurriaz, eskulanak ikasiaz, ipuinak bilduz, beren herrietako haurrekin lan eginez.



Frantziako Udalekutan titulatu bat, ongi ikasi bat, du talde honek zuzendari eta argiemaile; bai eta bi apaizen laguntza ere.

Esandakoa nolabait laburtzeko, hontan bilduko genuke talde honen lan-araua, programa, batez ere eman nahi duten heziketari buruz -dena edo gehiena jolas eta bizitza praktikuaren bidez, esana bezala:



1.- Haurraren giza-heziketa,hots,pertsona de la beste pertsonen artean,elkarri zor diogun errespetua,laguntza eta maitasuna.


2.- Gu euskaldunak gara:euskra gure mintzaira,gure ohiturak...

3.- Gure Herria Euskal Herria da.

4.- Giza-euskal-heziketa hau hartzen da kristau-heziketaren zutointzat;bestalde,etxetik dakartziten erligio ohiturak betetzen saiatzen gara:meza eta abar.

Hona hemen talde honen jokabidea eta helburuak,muin-muinetik jasoak.

Udalekuen arduradunak.





# ~~HAURRA ETA INGURUA~~

*E. Senosiain*

Inguruak eragin ikaragarria du gizonarengan. Ingurua, gizakia gizatasunean hazi eta bizitzen bultzatza eta laguntzen dion neurrian izango da jatorra eta alderantziz, kondizio hauk betetzen ez dituen heinean arbuigarria.

Inguruaren eragina guztiontzat izugarria bada ere, haurrarentzat benetan neurrigabea da; baina zorionez, haurrentzat, gizarte-antolaketa traketsenean ere beraien ingurua hobeagotzeko tarte dexenteak aurkitu daitezke; zeren haurra, oso mugatu izanik, berak sumatzen duen inguruak gertu-gertu dadukanak, kondizio onatzen du zuzenki. Inguru gertu hau familiak eta ikastolak osatzen dute bereziki.

Irakasleengan dago, neurri handi batean, haurra zuzenki ikutzen duen inguruaren zati garrantzitsu bat askatzaile ala zapaltzaile izatea.

Ikastolak haurrari eskaini behar dion inguruak jatorra, askatzailea izan nahi badu, haurraren interesen biran mugitu beharko du, haurrak beharko du bere ardatza izan eta ez guraso, ez irakasle, ez ikastola, ez herriaren interes konkretuak; hauen interesak haurrarenarekin bat etortzen diren neurrian arabera bait dute egiazko garrantzia heziketan.

Haurrak mugitu behar duen inguru hortako faktore inportanteena afektibitatearena da; hontaz aurrenetako aldizkariaren ale batetan agertu nuen nere iritzia. Ttikiei buruz buruz esandakoak -konfiantza, onhartua dela sentitzea, hizt batean, maitasunak ematen diola haurrari bere desarroilo bidean hain beharrezko duen segurantzaz, ekilibrioa -berdin balio dute beste guztiontzat ere, adin bakoitzak eskatzen duen era berezian noski. Alderdi hau oinarrizkoa izanik oso kontuan eduki beharko dugu aipatzen ari garen inguru jator hori lortzeko.


Haurrak ikastolan landuko dituen jakintza mo



ta bakoitzak bere inguru propioa behar du, baina ikas tolako inguru osoan itsatsirik dagoena, hau da, haurra ardatz beti. Hau nolabait agertzeko irakur-idazketa gaiari helduko diot.

Irakur-idazketa, espresio bideak, komunika bideak dira, haurra hortara iristen den neurrian bakarrik jakingo du irakurtzen eta idazten. Espresio mota hauetaz jabetzeko, haurrak heldutasun bat behar du, urteak eta inguruko estimulak lor araziko dion heldutasuna.

Jeneralean guk ez dugu patzientziarik hartzen eta haurra behartzen dugu ezertarako ez duen dezifratze teknika ikastera irakur-idazkeraren sentidu guzia faltsutuaz, haurrari prolema faltsuak sortuaz, guzia, bere adimenaren esnatzearen kaltetan. Horra hor haurra bere honerako ez den zerbait egitera beharturik; Ulertzen ez duena irakurtzeagatik, zer den ez dakiena idazteagatik txaloak jasoko ditu eta iristen ez dana, hau da, irakur-idazketaren printzipioen aurka joan ezin duenak hamaika nahigabe jasan beharko du. Hau aldrebeskeria;



Esan bezala irakur-idazketa espresio bideak badira, aurrenik haurra espresatzera bultza behar da hitzaren, marrazkiaren bidez, honekin batera nahiko handi ba da -nere iritziz sei urte behar du - idaztera bultza. Hasieran ez du beharrezko erabiltzen duen grafia ezagutzea, baina bai egiten dituen zirri-borro horien bidez adierazi nahi duena esaten duela edo ahal ditekeala konturatzea; grafia hori pixkaka ezaguna egingo zaio haurrari eta ia konturatu gabe idazkeraz jabetuko da. Ikastola-arteke korrespondentzia da bultzagarri egokiena eta aberatsena, honen bidez agertzen bait da garbi irakur-idazketaren helburua.

Goizegi irakurtzera behartzen zaion haurrari zama handiegia erasten zaio eta beretzat hain garrantzi handia duen espresatzeari ekiteko barrena kezkatuegia edukitzen du irakasleak esijitzen diona erdiesi ezinik.

Espresioa dela inportantea eta teknikak haren zerbitzuan egon behar dutela komentzitu behar dugu; honela haurraren adimenak egin behar duen esfuerzoa ongi kontuan edukiaz teknika horiek ikasten laguntzeko ariketa egokiak ere asma ahal izango ditugu.



# DIN DAN... BOLEERAN

## 1).- Ikastola liburutegia.-

Igaz planteatu eta erabaki zuten ikastolek testo-liburuen arazoari aurpegi ematea, preski horretarako talde apropos bat arduratzen zelarik irakasleen artean. Lan hori mugieraztea zuen egingizun, eta liburuxka sistimari jarraituaz, dela irakurgai, dela ikasgai, argitara emateko. Halatan bada, hasi da ondorioz lana bere fruitua ematen.

a) Ikastola-Hiztegia.- Hau zen deus egiteko-tan lehenik burutu behar zena: hiztegia, hain premiazko genuen hiztegia, ikastolan gehienbat erabiltzen diren gaiak lantzeko.

Ez da dudarik, ezin gehiagoko hutsune handi bat genuen zenbait hitz tekniko edo jakintza hitzei buruz; eta gainera, han eta hemen ibiltzen zen hiztegi a bata bestearekin konparaturik, ba zen diferentziairik asko. Ez bakarrik hitzaren forma eta ortografia-ri gagozkionez, baita ideia xuxenki eman ahal izateko hitzaren egokitasunari buruz ere. Batasunak beraz, kasu honetan, bi alderdi hauek eduki behar izan ditu goan.

Gure lan hau guztizko denik ez dugu pentsatzen, baina oraingoz, beste urrengo edizio bat hobekia go osatu arte, zerbitzu ona egingen duelakoan gaude.

b) Irakurketa-metodoa.- Hamasei aleko sortaren lehendabiziko lauak eskuetan daduzkagu aski tazu jantzirik, gaurregungo metodo berrien arabera. Duela hamar bat egun argitara emanak dira, eta laster ukanen dituzue salgai. Ba zen euskaraz horrelako batzuk ikusteko garaia;



d).- Feliren matematika.-

Horrelaxe deiturik aditzen dugu denok. Aspaldidanik genuen 4-6 urtetako haurrentzat "Matematikaren Hastapenak" delako matematika berriaren liburu honen berri. Eta orain seguru dakigu lana osoki bukatu inprentatzen dagoela. Ez da liburu soilbat, material aberats eta ugaria baizik.

Datorrela lehen bai lehen, eta gure goresmenik beroenak Feli eta beronekin ihardun den taldeari. Gainera, beste zertxobait ere esango genieke: alegia, sei urtez gorako mailei buruz noiz ikusiko ote ditugun gisa horretako liburuak zain geratzen garela, horra.

2.- Ikastola berriak.-

Agidenean, Nafarroak hiru ikastola eraiki ditu berriak: Aoitze, Altsasu eta Lakuntza, beste bakarren bat-edo oraino bidean delarik. Orobat mugaz bestaldean ere, hiru behinik behin, lau ez badira: Donapaleu, Hazparne, Hendaia... Ezin uka zinez pozten gaituela ikastolen hedakuntza honek, bestalde aski kezka erazten bagaitu ere: hedatzearen arabera alegia, bai ote gogutzen sakontze edo finkatze lanean.



3).- Gasteiz.-

Araba hiriburuko ikastolako hirurogei eta hamabost (75) guraso hasi direla gartsuki euskara ikasten esan daukute. Ez da batere albiriste txarra, alafedei eta zimiko ederra beste eskualdeetako gurasoentzat ere, berehalakoan hasi nahi badute ikasten: euskara, eta... ez legoke gaizki gaur egun ikastolek bizi duten zenbait arazoren berri ikastea ere.



4) .- Hondarreta. -

Araudi bat ikusi dugu, baina guztiz araudia, Bizkaiako Izpasterreko ikastola honetan "Barne-Araudi"tzat eman dutena. Diotenez, gurasoek eman da, aski zorrotza eta goitik beherako dirudiena itxura batetan. Ez dugu juzgu txarrik egin nahi, agian ongien moldaturik den ikastola, bera izanen bait da, baina gauza kanpotik ikusirik duda-mudetan uzten gaitu. Ez ote irakasleei kokotsetik ezarria, delako araudi hori? Eta horrela balitz (ez bedi izan), zilegi ahal da gurasoek, berek bakarrik, andereñoekin kontatu gabe gisa horretako gauza serio bat egin dezaten?

berriketari.





NUN ZER

|                                             |    |
|---------------------------------------------|----|
| Ikastola eta herria .....                   | 4  |
| Gurasoen aginteari buruz.....               | 13 |
| Guraso ta gazteen gora-behera .....         | 18 |
| Irakurketari buruz esperientzi tipi bat.... | 23 |
| Freinet-eskola batetan.....                 | 25 |
| Saturraran eta Beireko Euskal Udalekuak.... | 30 |
| Haurra eta ingurua .....                    | 33 |
| Din Dan...Boleran ...                       | 35 |





